

POSTA BIDEZKO OHIKO BOTOA

2011ko AZAROAREN 20ko KONGRESU ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEAK

1. ERROLDAN IZEN EMATE ZIURTAGIRIAREN ESKARIA

Epea: irailaren 27tik azaroaren 10era.

Eskaera hautesleak berak, beste inork ere ez, egin beharko du CORREOSen edozein etxetan, non NAN originala (fotokopiarik ez da onartuko) aurkeztuz, datu pertsonalen agiria bete beharko duen, hauteskunde datuen bidaltze helbidea adieraziz. Hautesleak correosen funtzionarioaren aurrean sinatu beharko du eskaria zigilua jartzeko eskatuz eta kopia gorde.

Eskaera beteta, CORREOS etxeak, hauteskunde errolden probintzia ordezkartzara igorriko du.

2. HAUTESLEARI, HAUTESKUNDE DOKUMENTUEN BIDALKETA

Epea: urriaren 31tik azaroaren 13ra.

Hauteskunde errolden bulegoak, hauteskunde dokumentuak bidaliko ditu hautesleak aldeztatik bete duen agirian adierazitako helbidera, edo bestela, erroldak adierazten duenera, gutun ziurtatuaz. Bidaliko duen dokumentu zerrenda, jarraian adierazitakoa da:

- Hauteskunde erroldan izen emate **ziurtagiria**
- Ospatuko diren hauteskunderi dagozkien Alderdi eta koalizio guztien **boto-txartel eta botazio gutunazalak**, Kongresurako zuria kolorekoak eta Senaturako sepia kolorekoak.
- Hautesleari botoa ematea dagokion **mahaiaren helbidea**, idatzita dakarren **gutunazala**.
- Posta bidezko botoa egiteko, **azalpenak** dakartzan **orria**.

3. HAUTESLEAK, HAUTESKUNDE DOKUMENTUEN JASOTZEA.

CORREOS etxeko postariak, eskura emango dizkio hauteskunde dokumentuak, hautesleari, aldez aurretik adierazitako helbidera; bertan topatuko ez balu, postariak oharra utziko lioke, aipatu CORREOS etxera gerturatu dadin, posta bidezko dokumentua jasotzera norberaren ziurtagiriaz, beti ere; norbera ez den beste inork ezingo baitu dokumentu hori jaso, berak sinatu behar baitu.

4. HAUTESLEAK HAUTESKUNDE DOKUMENTUEN BIDALKETA

Epea: azaroaren 16 arte.

Hau posta bidezko botoa bideratzeko eman beharreko azken pausoa da. Bidalketa edozein pertsonak egin dezake, horretarako inolako baimen beharrik gabe.

Hautesleak boto txartelak aukeratu eta dagozkien gutunazaletan sartuko ditu.

Boto gutunazala, **itxita** (boto txartel bana barruan duela), **beste gutunazal batean** sartuko ditu hautesleak. Gutunazal honek, hautesleari **botoa ematea dagokion mahaiaren helbidea** idatzita dakar, eta bertan sartuko du aipatu gutunazala, gehi **erroldan izen emate agiria** (errolda agiririk gabe, botoak ez baitu balioko).

Azken gutunazal hau **itxi** eta **bertan dioen helbidera** bidaliko du hautesleak, gutuna **ziurtatuta eta premiatasunez**. Gutunazal honek **ez du frankeorik behar**.

OHARRAK

- **Ez** da inongo **markarik** edo **ezabaketarik** egingo, boto txartel eta gutunazalean.
- Posta bidez egindako botoa, boto pertsonalari **gainezartzen** zaio. Hau da, edozein pertsonak posta bidezko boto eskaria egiten badu, nahiz eta gero aurrera eramanez, ez du 2011ko azaroaren 20an hauteskunde egunean dagokion mahaiaren, botoa emateko aukerarik izango.

GAIXO ETA EZINDUEN POSTA BIDEZKO BOTOA

Hauteslea, gaixotasunak edo ezintasunak jota, posta bidezko botoaren eskaria egitera joan ezinean ibilita, ordezkoa joango zaio egitera, ondorengo baldintzatan:

- Hauteslearen gaixotasuna edo ezintasuna baieztatuko duen dohaineko mediku ziurtagiri ofiziala beharko da.
- Gaixorik edo ezinduta dagoen hauteslearen ordezkook, ahaldun dela notaritza bidezko ziurtagiri batez baieztatuko du, gaixorik edo ezinduta dagoen hauteslearen NANaz batera. (Gogoan izan, hautesle gaixo edo ezindu bakoitzari, ordezko **bakarra** dagokiola, eta gaixo ezindu **bat** ordezkatzeko duenak, **bat eta bakarra** ordezka dezakeela). Hauteskunde batzordeak aztertuko du kasu bakoitzean egoeraren egokitasuna.

Gainontzeko prozedura eta epeak, ohiko posta bidezko botoak dituenarenak dira, hauteskunde errolden bulegoak bidaltzen dituen dokumentuen jasotzea izan ezik. Hauteslea gaixoa edo ezindua den kasu honetan, dokumentuak, hauteslearen ordezkook jaso eta bideratu ahal izango ditu, baldin eta CORREOS etxeko langileari, hori egiteko *notaritza* bidezko ahalmena duela egiaztatuko badio (azken hau nahitaezko baldintza da). Hauteslearen ordezkook, ahaldun dela egiaztatzerik izango ez balu, ez luke hauteskunde dokumentuak jaso eta bideratzeko aukerarik izango.